



## M17 ADIERAZPEZN INSTITUZIONALA

Maiatzaren 17an Homofobia, Lesbofobia, Transfobia eta Bifobiaren kontrako eguna aldarrikatzen da. 30 urte dira Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuela, eta ordutik maiatzaren 17ak oso balio esanguratsua du lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualentzat, kolektibo horrek gaur egun aurre egin behar dion diskriminazioaren aurkako eta eskubideen aldeko eguna bilakatu zelako.

Aurten, COVID-19aren ondorioz etxean erdi konfinaturik geratu behar garenez, ezingo da kalera irten manifestatzera, baina berdin jarraituko dugu sexu eta genero aniztasunarekiko gorrotoak sortarazten dituen erasoak salatzen.

Honen baitan, Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak adierazi nahi dute orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminaziorik ez dutela onartzen, ez eta indarkeriarik ere. Lesbiana, gay, transexual, bisexual, transgenero eta intersexualek bere adierazpen afektibo-sexualak askatasun osoz bizitzeko eskubidea dute eta.

Hori horrela, Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak honako konpromisoak adierazten dituzte:

- Orientazio sexuala eta genero identitatea edozein dela ere, herritar guztienganako errespetua izatea eta bultzatzea.
- Pertsonen duintasuna eta osotasun fisikoa eta emozionala errespetatzea, eta espazio publikoetan eman litezkeen adierazpen homofobo, lesbofobo eta transfoboak ez onartzea.
- Identitate sexual anitzen inguruan dagoen ezagutza ezari konponbidea jartzea eta horretarako bideragarriak diren ekimenak bultzatu eta babestea. Arlo honen hobekuntzarako lanean jarraitzea, gaia gizarteratuz eta haren ezagutzan sakonduz.
- Aukera sexual eta genero identitate guztien irudi duina sustatzea.

Deba-Itziarren, 2020ko maiatzaren 16an.